

## B29

## Amore linda galant bata...

Poema labur honen edukia argia da: maitea ikusteak ematen dio maitaleari poz bakarra, eta hura ez ikusteak malenkonია.

Bakoitietan bederatzí (edo zortzí) eta bikoitietan zortzí silabako lerroak dituzten pareatuen segida da; bakoitiak libreak dira, errimarik gabeak, eta bikoitiek *-ia* errima dute, B26 poeman bezalatsu.

[1204v] Amore linda galant bata<sup>1</sup>  
 ene amore berria;  
 ] hura<sup>2</sup> dacustan ordu orotan<sup>3</sup>  
 orcean<sup>4</sup> ur<sup>5</sup> det<sup>6</sup> irria;  
 hu]ra estaqustanean,<sup>7</sup> 5  
 aldean malenconia.<sup>8</sup>

<sup>1</sup> *bata*: ‘bat da’.

<sup>2</sup> *hura*: *hura* erakuslearen adibideetako bat. Eskuizkribuan lau aldiz aurkitu dugu: *donzella ura* (B21: 95), *Donzella ura, cecusenean* (B21: 113), [...] *hura dacustan ordu orotan* (B29: 3), *[hu]ra estaqustanean* (B29: 5).

<sup>3</sup> *orotan*: Bi aldiz aurkitu dugu *oro* eskuizkribuan, biak Sasiolakoaren poemen eranskinean: *podere oro* (B28: 15) eta *dacustan ordu orotan* (B29: 3). Cf. *OEH*, s.v. *oro*: “Al Sur se encuentra en textos antiguos: en una carta navarra del s. XV, en *RS*, Isasti y Beriayn (en la construcción *-(e)n oroz*)”.

<sup>4</sup> *orcean*: ‘aurpegian’; cf. *OEH*, s.v. *ortz*: “3. “(V-ger), rostro, semblante. *Ortz argiko gizona* (V-ger), hombre de rostro alegre” A”.

<sup>5</sup> *ur*: ‘hurbil’.

<sup>6</sup> *det*: *de-* moldeko *\*edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan (eta gehienak Estibaliz Sasiolakoaren poemetan agertzen dira): *det* (A5: 26, B27: 2, B27: 4, B27: 10, B28: 9, B29: 4), *dedan* (B30: 18), *badeçu* (A16: 70, A28: 168), *deçun* (A26: 90), *estet* (B29: 7) . Gutxi dira, orobat, *du-* eta *deu-* moldeetakoak.

<sup>7</sup> *estaqustanean*: ‘ez dakustanean’; Estibaliz Sasiolakoaren poemez osaturiko eranskinean, ugari dira txistukariaren nahasketak: *esin* (B27: 16, B27: 17), *es* (B27: 21), *estaguiçula* (B27: 25), *sure* (B28: 2), *çaytesque* (B28: 3), *sacusquedan* (B28: 4), *estaqustanean* (B29: 5), *estet* (B29: 7), *lastanarequin* (B30: 3), *equzten* (B30: 25), *gustiac* (B31: 3), *naguci* (B31: 4), *equci* (B31: 6), *lastan* (B33: 5), *flordeliçac* (B33: 13), *joci* (B33: 15), *Guipuscoaco* (B33: 18), *Gastelaco* (B33: 20), *gustiac* (B33: 35). Eskuizkribuko testu nagusian, berriz, soilik *desesperanças* (A1: 46) eta *esperanças* (A17: 31) aurkitu ditugu, eta Martin Lopez Bikuñaren poemetan *negarres* (B8: 4) eta *bearres* (B8: 8), instrumentalaren markaren lekuan <-s> txistukari apikaria dutela.

<sup>8</sup> *malenconia*: ‘malenkonía’; cf. Lcc “malenconía, *malenconia*”.

Egun<sup>9</sup> ecusi estet eta,  
oy<sup>10</sup> ene becataria!

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

2 ene] hasierako *e-* horren goiko partea baino ez da ikusten. 3 hura] aurrean zerbait idatzi eta tatxatu zela dirudi, baina orria ezkerretik apurtuta dago eta ez da ikusten. || orotan] lerroartean; lerroan hiru letra tatxatuta (agian *ota-*). 4 orcean] aurrean, galdutako paper-zatian, bazen beste letraren batentzako lekua (ziur aski *o-* letrarekin hasten diren hitzen aurrean idatzi ohi duen zeinu bereizlea). 5 estaqustanean] esk. *estaqustanea*. 6 aldean] esk. *aldea*. 7 eta] lerroartean; lerroan *esta* tatxaturik.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B29 – Amore linda galant bata...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

---

<sup>9</sup> *Egun*: ‘gaur’; cf. *OEH*, s.v. *2 egun*: “Empleado de forma general por autores septentrionales y alto-navarros; en textos más occidentales se encuentra, por un lado, como término fosilizado en la oración del Padrenuestro, desde Capanaga hasta casi nuestros días; tbn. lo hallamos en unos versos vizcaínos de 1688 y en Barrutia. En textos guipuzcoanos es algo más frecuente: lo emplean Larramendi, Mendiburu (*IArg* I 91), Iturriaga (*Fab* 194) e Iztueta, y ya en el s. XX hay testimonios de bastantes más autores, especialmente desde 1950; Aguirre de Asteasu sólo emplea la expresión *egungo egun*”.

<sup>10</sup> *oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak, bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera, baina hemen oso-osoan esklamaziozkoa da.